

DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Tratamenduaren izena	INFORMAZIO-SISTEMA ETA -ZERBITZUEN KUDEAKETA
Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak	<p>Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua / Ekonomiako eta Finantzako Dibisioko Zuzendaritza</p> <p>– Araba, 45 – 01006 Vitoria-Gasteiz</p> <p>Osakidetzako Datuen Babeserako ordezkaria:</p> <p>– Araba kalea, 45 – Vitoria-Gasteiz</p> <p>– DBO-DPD@osakidetza.eus</p>
Tratamenduaren xedea	Informatikako zerbitzuen kudeaketa. Barne daudenak: erabiltzaileen aplikazioak, ziurtagiri elektronikoen kudeaketa eta posta elektronikoa administratzea, esleitutako baliabide informatikoak kudeatzea, komunikazioen trafikoa aztertzea, intzidentziak eta erabiltzaileen arreta zentroa kudeatzea, zerbitzu informatikoak eskatzea eta informatikako jarduerarekin lotutako beste batzuk.
Datuak gordetzeko epea	Erabiltzaileek Osakidetzako sare informatikoak eta informazioa erabiltzeko baimena duten bitartean.
Tratamenduaren oinarri juridikoa	Lege-eginbearra betetzea, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean, ekainaren 26ko 8/1997 Legean (Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa) ezarritakoaren arabera.
Hartzaileak	Ziurtagiri elektronikoak kudeatzeko emandako identifikazio-datuak egiaztatu daitezkeen erregistroetan dauden administrazioak, eragindako pertsonaren aldez aurreko baimenarekin.
Eskubideak gauzatzea	<p>Interesdunak datuetara sartzeko eta horiek zuzendu edo ezabatzeko, eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko eskubideak gauzatu ahal izango ditu idatzi bat zuzenduta Osakidetzari – Ekonomiako eta Finantzako Dibisioko Zuzendaritza, Araba kalea 45 - 01006 Vitoria-Gasteiz helbidera, NANaren edo beste nortasun-dokumentu baliokide baten kopia erantsita.</p> <p>Interesdunak, halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa aurkezteko.</p>